

2007KO MARTXOAREN 14KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko martxoaren hamazazpian, iluntzeko zazpian, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Eguneko gai zerrendan, hutsegitez, puntu bat sartu gabe gelditu zen: txoznak Sanprudentziotan. Hau horrela eta hurrengo Tokiko Gobernu Batzorderako uztea berandu izango dela kontutan izanda, presazko moduan tratatzea planteatzen da eta guztien onarpena jasotzen du.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko otsailaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 12 zbk.dun fakturen zerrenda, HOGEITA BEDERATZI MILA ETA LAU EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMO (29.004,83 €)takoa eta 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun fakturen zerrenda, EHUN ETA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA BERROGEITA BOST ZENTIMO (106.851,45,-)takoa, bere espedientean daudenak, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- PLAZAKO ESPALOIAREN 3. ZERTIFIKAZIOA.-

Udaletxea eta Plazako Frontoiaren artean espaloia eraikitzearen lanen obra zuzendaritza daraman Udal Arkitekto Teknikoak lanen 3. zertifikazioa luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa LAU MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST EURO eta BERROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (4.755,51 €)takoa da. Lan hauek burutzen ari dena Fronton Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (Constr. Donosti, S.A. eta Urbanizaciones Iruña, S.A.) da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, guztien adostasunarekin Udaletxea eta Plazako Frontoiaren artean Espaloia lanen 3. zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,5€ ematea urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- 198 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko, hilean 37,16€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %76 a da.
- 505 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 89,63€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 175 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 54,15€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 451 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 72,95€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- 103 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 43,05€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %88a da.
- 111 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 92,5€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 133 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 75,91€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 427 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko, hilean 192.29€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 49.85€ ematea, urtarritik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %82a da (*).
- 557 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 45.54€ ematea, urtarritik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 89,72 € ematea, urtarritik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %97a da.
- 490 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,28€ ematea, urtarritik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

- 489 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 75,51€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %88a da.

- 385 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 37,83€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %93a da.

- 722 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean, 133,98€ko dirulaguntza ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %58a da. (*)

- 627 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 290,00€ko dirulaguntza ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da. (*).

- 135 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,5€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

- 573 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 52,33€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

- 775 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 54,37€ ematea eta alokairurako 69,40€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

475 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 66,14€ ematea eta alokairurako 242,90€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %99a da.

(*) Arautegian egon diren aldaketak direla eta (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren 2007ko otsailaren 21eko Agindua), alokairuaren prezioaren %70a izango da gehienez ere emango dena.

Telealarma.-

- 809 zbk.dun esped.: Telealarmaren instalaziorako 37,17€ko eta honen mantenimentuko gastuentarako urtean 39,60€ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona telealarmaren kostuaren %50a da.

San Benito Ikastolari dirulaguntza.-

Guraso eta haurren arteko arazo eta egoera ezberdinei buruz, San Benito Ikastolari 2.220,00€ko dirulaguntza ematea gurasoen prestakuntzaren inguruan emango diren saiouterako.

Gizarte zerbitzuetako arloko entitateei dirulaguntzak.-

2007 urteari dagokionean, ondoren zerrendatzen diren entitateei honako dirulaguntza hauek ematea:

ASPACE	466,00€
ATZEGI	431,00€
ODOL EMAILEAK	1.081,00€
GURUTZE GORRIA	681,00€
DYA	355,90€
HIES-AREN KONTRAKO ELKARTEA	466,00€
GIZAKIA HELBURU	1.063,00€

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

2006ko eguberrietan egindako XVIII. liburu eta diskoen azoka dela eta, Gerriko liburudendari 2.925,88 €ko dirulaguntza emateko Udal Euskara Batzordeko Batzordeburuak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

VI.- TXOZNAK SANPRUDENTZIOTAN.-

Festetan irekitzen diren taberna eta txoznen inguruan honako eskaerak egon dira: Lazkao Kirol Elkartea, Lazkao Kirol Elkarteko Pilota Saila, Presoen Lagunak, AHT-rik Ez, Ezker Abertzalea.

Hauetatik txoznak jartzeko 3 dira: bata, Iker Iruin Arrutik Presoen Lagunak taldearen izenean aurkeztutakoa; beste bat, Aitor Roman Gomezek AHT-rik Ez taldearen izenean aurkeztutakoa; eta azkenik, Haizea Begiristain Laimunsek Ezker Abertzalearen izenean aurkeztutakoa.

Lokaletan taberna jartzeko eskari bat dago, Lazkao Kirol Elkartek bi eskakizunen bidez egindakoa.

Lokaletan taberna jartzeko aurkeztutako eskariaren aurrean udala etxe horretako bizilagunekin elkarriketetan ari da, jarduera horrek sor lezazkeen eragozpenak aztertze-ko, eta horregatik eskari honi buruz erabakia ez da orain hartuko eta datu eta txosten guztiak izandakoan alkatetzaren ebazpen bidez hartuko da erabakia.

Era berean hemendik festak bitartean eskaera gehiago egongo balira Alkatetzaren ebazpen bidez ebatziko lirateke, beti ere hemen jartzen diren baldintzak jarraituko direla-rik erizpide gisa.

Baimendu daitezkeen tabernen kopurua gehienera ere 2 izango dira eta txoznen kopurua, berriz, 4.

Tokiko Gobernu Batzarrak, eskaera hauek azertu ondoren, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Txoznak jartzeko baimena ematea, jarraian adierazten diren baldintzak ezarriz:

- Txoznak jartzeko kokalekua Udaletxe atzea izango da.

- Txozna eta taberna bakoitzak 145 € euro ordaindu beharko du, hau da, iazkoa KPIren aldaketaren igoerarekin.
- Ixte ordutegia, geihenez ere goizeko lau terdiak izango da.
- 18 urtez beherakoentzat alkohol salmenta debekatuta dagoela adierazten duen kartelak jarri beharko dira ikus daitezkeen tokietan.
- Txoznak maiatzaren 4erako kenduta egon beharko dira.
- Tasa ordainketa maiatzaren 31a baino lehen egin beharko da, Udalak herriko banketxetan horretarako dituen edozein kontu korrontetan.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.